GIDA

PARTAIDETZA PROZESUAK EBALUATZEKO GIDA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ETORKIZUNA ERAIKIZ

~ ~ ~

Donostia, 2019ko urriaren 2a

PARTAIDETZA PROZESUAK EBALUATZEKO GIDA

HERRITARREN
PARTAIDETZA

Eider Mendoza

Gobernantza diputatua

Herritarren partaidetza Gipuzkoaren DNAn dago. Gure lurraldeak tradizio luze eta sendoa dauka arlo honetan. Honen adibide dira, esaterako, gure arbasoek antzinatik egin ohi duten auzolana edota, garai berriagoetara etorrita, kooperatibismoa. Bi kasu hauek Gipuzkoan oso hedatuta dagoen praktika sozial honen eredu garbiak dira, baina partaidetza bizitza sozialeko esparru anitzetara iristen da, hala nola kultura, kirola edo aisialdia.

Hau guztia dela eta, partaidetzak sekulako pisua dauka lurraldeko administrazioen agendetan, bereziki Gipuzkoako Foru Aldundiarenean. 2015-2019 legealditik hona, elkarlaneko gobernantza eredu ireki baten aldeko apustua egiten ari gara, garai berriei egokitua. Planteamendu honek partaidetzan dauka bere ekintza ildo nagusietako bat. Ziur gaude partaidetza ezinbesteko tresna dela gardentasuna bermatzeko eta, aldi berean, politika eta herritarren arteko urruntasuna murrizten laguntzen du.

Hala ere, bere eraginkortasuna bermatze aldera, edozein partaidetza prozesuak jarraipena behar du, eta oinarrizko kalitatezko irizpide batzuk jarraitzea. Hau da, erreminta ezberdinak behar ditu, parte hartzen ari diren guztien aurrean zilegitasuna izateko. Hau da, hain zuzen, esku artean duzuen Partaidetza prozesuak ebaluatzeko gida honen egiteko nagusia, bere ekarpen nagusia Gipuzkoan egiten ditugun mota honetako ekimenen sinesgarritasuna are gehiago areagotzea izango baita.

01 **SARRERA** 8
Zergatik prozesu parte-hartzaileak ebaluatzeko gida? 11
Nork osatu du gida hau? 12
Nola osatu da gida? 13
Zeintzuk dira gidak oinarri dituen printzipio nagusiak? 13

02 **PARTE HARTZE PROZESUEN EBALUAZIOA** 16
Zer ebaluatuko dugu? 19
Nola ulertzen ditugu irizpideak? 20

03 **EBALUAZIO-ALDAGAIAK** 34

04 **GENERO-AZTERKETARAKO ALDAGAIAK** 44

BIBLIOGRAFIA 52

01

SARRERA

01 SARRERA

PARTAIDETZA PROZESUAK EBALUATZEKO GIDA

“HERRITARREN PARTAIDETZAK LEKU NAGUSIA BETE BEHAR DU BOTERE PUBLIKOEN JARDUERAN, POLITIKA PUBLIKOAK ZEHAZTEKO ETA POLITIKA HORIEK GAUZATU EDO KUDEATZEKO UNEAN”

Zergatik Prozesu parte-hartzaileak ebaluatzeko gida?

5/2018 Foru Arauak, azaroaren 12koak, Herritarren Partaidetzari buruzkoak (aurrerantzean “Partaidetza Araua”), xedatzen du herritarren partaidetzak leku nagusia bete behar duela botere publikoen jardueran, politika publikoak zehazteko eta politika horiek gauzatu edo kudeatzeko unean, herritarrek ekarpen erabakigarria egin ahal izateko, gaitutako modu eta prozeduren garapenaren bitartez.

Modu eta prozedura horien artean, partaidetza prozesuak izaten dira tresna erabilienak herritarren eta erakundearen arteko elkarrizketa zuzena bideratzeko. Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat, partaidetza prozesuek egiazko zentraltasun eraginkorra izan behar dute politika publikoen definizio eta kudeaketan, politika horien diseinuaren eta zehaztapenaren hasieratik beretik.

Eraginkortasun hori lortzearren, eta herritarrekiko errespetua eta prestasuna erakundearen xede izanik, **partaidetza prozesuen kudeaketak autonomia teknikoa eta sinesgarritasuna behar ditu, bai partaideen aurrean, bai, oro har, herritarren aurrean. Ildo horretatik, oinarrizko irizpideak dira bai kalitatea eta bai etengabeko hobekuntza.**

Partaidetza Arauak bere 50. artikuluan zehazten duen moduan *“praktikan jarri den partaidetza prozesu bat amaitzean, partaidetzaren arloan eskumena duen organoak ebaluazio prozedura bat zabalduko du(…) eta hori genero ikuspegitik egingo da, eta jarduerek genero inpaktuaren eta ateratako konklusioen berri emango du”*. **Hori horrela, Herritarren Partaidetzako Zuzendaritza Nagusiak agindu hori bere egin, eta berariaz prozesu parte-hartzaileen ebaluaziorako gida hau sortu du, prozesuen kudeaketa teknikoa ahalbidetu eta horiek etengabeko hobekuntza prozesuan barneratzeko.**

Nork osatu du gida hau?

Jarraian aurkezten den gida hau Herritarren Partaidetzako Zuzendaritza Nagusiak landu eta egituratutako tresna da. Zuzendaritzak bere lan-jarduna zuzentzen du Partaidetza Arauak zehaztutako aginduak bete eta bertan aurreikusitako eskubide, tresna, baliabide eta sistema ahalbidetzera.

Era berean, bere egitekoak Gipuzkoako Foru Aldundiko gainerako departamentuen, udalen, elkarteen eta herritar ez antolatuen mesedetan aritzeko antolatu ditu. Herritarren partaidetza gobernu onaren ezinbesteko tresna izan dadin Zuzendaritzak lan egiten du: partaidetzaren nahia areagotzeko, parte hartzeari buruzko ezagutza eta trebetasunak lantzeko, parte hartzeko aukerak sortzeko, eta herritarren partaidetzarako esperientzia eta guneak sustatzeko. Horretarako, besteak beste, aholkularitza, prestakuntza, baliabideak zein bitartekoak sortu eta eskaintzen ditu.

Eginbehar horietan, prozesu parte-hartzaileen diseinuak, garapenak eta ebaluazioak indar berezia hartzen dute. Hori horrela, prozesu parte-hartzaileak ebaluatzeko gida ezinbesteko tresna da arestian aipatutako kalitate teknikoa eta autonomia ahalbidetzeko.

Nola osatu da gida?

Ebaluazio prozedura sistematizatzeko helburuarekin GFAko Herritarren Partaidetzako Zuzendaritza Nagusiak gida hau egituratu du. Gida osatzeko, berebiziko garrantzia izan du Eusko Jaurlaritzak argitaratutako *Administrazio publikoetan parte-hartzeko prozesuak ebaluatzeko ereduak*. Izan ere, erakundeek herritarren partaidetza ulertzeko modu ezberdinak izan baditzakete ere, egokia iruditu zaigu prozesu parte-hartzaileak teknikoki ebaluatzeko egitura bera erabiltzea, erakunde bakoitzak txertatu nahi dizkion xehetasunak xehetasun, inoiz herritarren parte-hartzerako esperientzien ebaluazio orokorrago bat egitea ahalbidetuko lukeelakoan. Horrela, jarraian aurkezten dugun gidak Eusko Jaurlaritzaren ereduaren ebaluaziorako hiru ardatz nagusiak hartzen ditu egitura moduan, eta kontuan hartzen ditu haietako bakoitzean zehaztutako irizpide nagusiak ere.

Eusko Jaurlaritzako gidaz gain, irizpideak eta ebaluazio aldagaiak aberastu ahal izateko OIDPren *Partaidetzazko prozesuen ebaluaziorako gida praktikoa eta Iruñeko Udalaren partaidetza-politikak ebaluatzeko tresna praktikoak* izeneko gidak erabili ditugu. Era berean, Gipuzkoako Herritarren Partaidetzarako Erakunde arteko Espazioaren baitan lan egin duen "generoa eta parte hartzea" lantaldeak egindako lanketa baliatu da, genero-ikuspegia ahalik eta modu egokienean txertatu ahal izateko.

Horiekin guztiekin, Gipuzkoako Foru Aldundiarentzako lan-tresna erabilgarri bat sortu dugula uste dugu, Partaidetza Arauak bere 50.4 artikuluan zehazten duen moduan aukera eskainiko diguna: **partaidetza prozesuan zertan asmatu den eta zertan ez adierazteko, baita hurrengo prozesuetara begira egoki iruditzen zaizkigun hobekuntza proposamenak egiteko ere.**

Zeintzuk dira gidak oinarri dituen printzipio nagusiak?

Partaidetza Arauak bere interpretazio eta aplikaziorako 15 oinarrizko printzipio ezartzen ditu: *unibertsaltasuna, transbertsalitatea, gardentasuna, egiazkotasuna, eraginkortasuna, iraunkortasuna, erraztasun eta ulermena, genero-ikuspegia, irisgarritasuna, gobernantza demokratikoa, kontu ematea, fede ona, desgaitasunen bat dutenekiko diskriminazio eza eta gizarte egituraketa*. Garrantzitsua iruditu zaigu, horiei erreferentzia egiteaz gain, gida honen egituraketan indar berezia hartzen duten printzipio batzuk labur-labur deskribatzea. Berariaz aipatu nahiko genituzke:

Genero-ikuspegia

"2/2015 Emakume eta gizonen berdintasunerako Foru Arauaren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jarduera guztia emakume eta gizonen berdintasuna lortzeko jarduna egitera behartua dago esparru guztietan eta, zehazki, 36 eta 37. artikuluetan zehazten da herritarren partaidetzarako foru politikek ezinbestean txertatu behar dutela genero ikuspuntua beren jarduera guztietan emakume eta gizonen arteko bereizkeriei aurre egiteko." Aldi berean, Partaidetza Arauak zehazten dituen helburuetan entresaka eginaz, esan dezakegu emakume eta gizonen berdintasunari erreferentzia egiten dionean ondorengoez ari dela: emakumeen eta gizonen partaidetza baldintza berdinetan sustatzeaz; emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna arautzen duten printzipioak maila orotara zabaltzen dituen partaidetzaren kultura sustatu eta finkatzeaz; emakume eta gizonen arteko inplikazio orekatua bultzatzeaz kudeaketa publikoan; politika publikoen eraketa eta ebaluazioan herritarren ezagutza eta esperientzien aberastasuna aitortzeaz, emakumeen ekarpenak ikusezin ez bihurtuz; elkartasun eta gizarte integrazio maila handiagoak bermatzeaz, espezifikoki lagunduz bai genero berdintasunerako bidean bai ekonomia eta kultura edota gizarte aldetiko bitarteko gutxiago dituztelako beren interesak babesteko unean desabantailazko egoeran dauden interesak babesteaz.

Foru Arauak zehaztutako helburuak erdiesten lagundu behar dute partaidetza prozesuek, beraz, ezinbestekoa da prozesuen ebaluazioek ere eragin hori neurtzeko ahalegina egitea norabide horretan lanean jarraitu ahal izateko. Hori horrela, genero adierazleak gainerako irizpide ezberdinekin batera txertatu ditugu gida honetan. Aldiz, gaiaren garrantzia kontuan hartuz eta Foru Arauak berak zehaztutakoa modu egokian betetzen lagunduko digulakoan, berariaz, genero-inpaktua neurtzeko aldagaien bilduma bat jaso dugu gida honetan.

Irisgarritasuna:

Unibertsaltasun printzipioak Gipuzkoako herritar guztiei aplikatzen die partaidetzarako eskubidea, hori horrela, kontuan izan behar da edonork parte hartzeko aukera izan behar duela, nolanahiko gaitasun kognitibo, fisiko, pertsonal edo tekniko dituela. Hori aintzat hartuz, partaidetzarako gaitutako bide eta bitartekoek ez dute bazterketa faktore bat izan behar biztanleriaren sektore jakin batzuentzat (arreta berezia jarriko da adinekoetan, beste kulturatako pertsonetan, aniztasun funtzionala dutenengan, eta abar).

Inklusioa:

Partaidetza prozesuak ez daude gizartean nagusi diren moldeak birproduzitzetik salbu, eta, hori dela eta, gizartean nagusi den profil jakin baten parte diren ahotsek gehiegizko neurria hartzen dute, beste gizarte sektoreen kalterako. Horregatik, eta ariketa konplexua izan badaiteke ere, prozesuen hasieratik gizarte maila, aniztasun funtzionala, adina, generoa, kultura maila, jatorria, arraza eta beste hainbat identitate-ardatz hartu beharko genituzke kontuan, ohikoa den homogeneotasun hori apurtzeko. Prozesuan ere ahots horiek entzunak izateko mekanismo edota teknikak txertatu beharko ditu, haiek modu aske eta seguruan adierazteko aukera izan dezaten.

Euskararen erabileraren normalizazioa:

GFAren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana (2018-2022) jarraituz, euskara eta gaztelania izango dira erakundearen lan hizkuntza ofizialak, eta lehentasunez euskara izango da Aldundiaren lan hizkuntza; horrela, baliabideen ekonomia irizpidea aintzat hartuz, euskaraz egin daitekeen guztia hizkuntza horretan egin behar da. Era berean, herritarrek hautatutako hizkuntzaz bideratu beharko du Aldundiak bere lan jarduna.

Partaidetza prozesuak ere bi irizpide nagusi horiek (euskararen lehentasuna, eta herritarren hizkuntza hautuari errespetua) aintzat hartuz planifikatu eta garatu beharko ditu GFAk. Horretarako, hizkuntzaren kudeaketa egoki baterako, beharrezko baliabideak ezarriz: hala nola, aldibereko interpretazioa, idatzizko euskarriak bi hizkuntza ofizialetan egotea, prozesua dinamizatuko duen lantaldearen bi hizkuntza ofizialetan jarduteko gaitasuna, etab.

02

PARTE-HARTZE PROZESUEN EBALUAZIOA

Partaidetza prozesuen ebaluazio-gida ororen helburua praktikara zuzendutako gomendio eta jarraibideak ematea da, partaidetza prozesu bakoitzera ondoen egokituko den ebaluazioa diseinatzen lagundu ahal izateko. Hori horrela, prozesu bat diseinatzerakoan ezinbestekoa izango da haren bereizgarriei, bai helburu bai baliabideei, modu egokienean moldatuko den ebaluazio-prozesua planifikatzea, burutuko dugun horren kalitatea neurtu ahal izateko. Planifikazio horretan irizpide bakoitzerako aldagaiak zehazteaz gain, bermatu beharko da sortuko diren ebaluazio-tresna guztietako datuak sexuka bereiztea, datu horien irakurketa egokia bermatu eta, besteak beste, genero-inpaktua neurtu ahal izateko.

02 PARTE HARTZE PROZESUEN EBALUAZIOA

PARTAIDETZA PROZESUAK EBALUATZEKO GIDA

Partaidetza prozesuen ebaluazioa egin ahal izateko ebaluazio-prozesua 3 ardatz nagusitan banatu dugu: diseinua eta planifikazioa, hedapena, emaitzak eta eraginak.

1 2 3

DISEINUA ETA PLANIFIKAZIOA

Partaidetza prozesuaren diseinuak ezinbesteko garrantzia du, izan ere, aurreikuspen eta planifikazio on batek eragin zuzena izan dezake prozesuaren kalitatean. Komenigarria da erakundearen barruan –kasu honetan Gipuzkoako Foru Aldundian– prozesuaren diseinua landu eta adosteko beharrezkoak diren denborak eskaintzea, bereziki, helburuak eta prozesuaren joko-arauak ondo zehazteko, eta horiei egokituko den proposamen metodologikoa eta baliabideen aurreikuspena egiteko.

HEDAPENA

Prozesuaren hedapena ebaluatzerako garaian aurreikusitakoaren eta garapenaren artean dagoen aldea aztertu beharko litzateke: prozesuaren garapena kalitatez egiten ari dela bermatzeko, bidean hartu beharreko erabaki tekniko eta politikoak hartzeko koordinazio egiturak behar bezala ari direla jakiteko, eta ezagutzeko parte-hartzaileen beharretara egokitzeko nahikoa malgutasun izan dugun.

EMAITZAK ETA ERAGINAK

Emaitzak aztertzen ditugunean bereziki arreta jarriko diogu prozesuak zituen helburuen **betetzeari,** bai helburu substantiboei dagokienean –eztabaidara eraman den politika, plan edo zerbitzua– bai parte-hartzeari jarritako helburuei. Era berean, arreta jarriko diegu partaidetza prozesuak parte-hartzaileengan, Gipuzkoako Foru Aldundian, helburuko politika/zerbitzu/planean eta kultura politikoan izandako eraginei.

Zer ebaluatuko dugu?

5/2018 Foru Arauak, Herritarren Partaidetzari buruzkoak, 50.4 artikuluan dioena: partaidetza prozesuan zertan asmatu den eta zertan ez, eta hobekuntza proposamenak zeintzuk diren.

1 2 3

Informazio nahikoa ote dugu? egokia izan al da planteamendua?

Aurreikuspenak bete dira? Alderik bada?

Egokia izan al da helburuak lortzeko?

DISEINUA ETA PLANIFIKAZIOA

1. EGOKITASUNA
1.1. Eskumena
1.2. Garrantzia
1.3. Helburuen egokitasuna
1.4. Joko-arauak
1.5. Itzulera

2. KOHERENTZIA

3. BIDERAGARRITASUNA
3.1. Baliabideak
3.2. Kanpo dinamizazioaren baliabideak

4. DISEINUAREN KALITATEA
4.1. Lidergoa
4.2. Zeharkakotasuna
4.3. Gardentasuna
4.4. Parte hartzaileak
4.5. Egokitzapen metodologikoa
4.6. Irisgarritasuna
4.7. Komunikazioa
4.8. Ahalduntzea

HEDAPENA

5. PROZESUAREN KALITATEA GARAPENEAN
5.1. Beste prozesuekiko sinergiak
5.2. Parte hartzaileen behar eta agendatara egokitzea
5.3. Proposamenak egiteko aukera
5.4. Dinamizazioa
5.5. Genero-irakurketa

6. GAUZATZEA

7. MALGUTASUNA

EMAITZA ETA ERAGINAK

8. ERAGINKORTASUNA
8.1. Helburuen betetzea
8.2. Joko-arauen betetzea
8.3. Irisgarritasuna eta inplikazioa (parte hartzea eta irekieraren kalitatea)
8.4. Itzulera

9. EFIZIENTZIA

10. ERAGINAK
10.1. Gipuzkoako Foru Aldundian
10.2. Parte hartzaileengan
10.3. Helburuko politikan/arloan
10.4. Kultura politikoan
10.5. Genero-eragina

Nola ulertzen ditugu irizpideak?

DISEINUA ETA PLANIFIKAZIOA

1

Prozesuen diseinua eta planifikazioa ebaluatu ahal izateko ondorengo irizpideetan jarriko dugu arreta: proposamenaren egokitasunean, koherentzian, bideragarritasunean eta planifikatu dugun prozesuaren kalitatean. Hurrenez hurren, horietako bakoitzean aintzat hartzen ditugun irizpideak azalduko ditugu.

1. Egokitasuna

Prozesu parte-hartzaile baten arrakastarako ezinbestekoa da eragile sustatzaileak argi adieraztea parte-hartze prozesua abian jartzeko dituen helburu eta motiboak. Izan ere, proiektuak ematen dio zentzua parte hartzeari: aldatu nahi dugun horrek eta hori aldatzeko ditugun arrazoiek baldintzatuko dute prozesu parte-hartzailearen behar edo egokiera.
Herritarren Partaidetzako Zuzendaritzatik egokitasuna neurtzeko erabiliko ditugun aldagaiak ondorengoak dira: eskumena, landuko diren gai horien garrantzia, helburuak, joko-arauak eta itzulera.

1.1. ESKUMENA

Abiatuko den prozesu parte-hartzaileak lan-ardatz duen politika publiko, zerbitzu edota arauak –izan herri ekimenetik edo udalen ekimenez abiatutako prozesu-proposamena, izan Gipuzkoako Foru Aldundiaren edota Batzar Nagusien ekimenez abiatua– GFAren eskuduntzen edo bere eragiteko ahalmenpean kokatu beharko du, emaitzak inplementatu ahal daitezen eta prozesua eraginkorra izan dadin.

Zer hartuko dugu kontuan:

• Zeinen ekimena izan da prozesu parte-hartzailea martxan jartzea?
• Zein da GFAren esku hartze maila: GFAk eskumenik ba al du gai honetan?

1.2. GAIAREN GARRANTZIA

Parte hartzea herrialde bateko garapenean garrantzitsuak diren gaietan txertatu beharko litzateke: herritarren eskubidea delako, eta, erakunde baten kalitate demokratikoa handitzeaz gain, politika publikoen eraginkortasuna hobetu dezakeelako. Horrela, adibidez, Partaidetza Arauak Deliberaziozko Partaidetza Prozesuak arautzen ditu Gipuzkoako Lurralde Historikoan garrantzia edo eragin berezia duten politika publikoak zehazteko prozeduraren barruan (12. artikulua).

Zer hartuko dugu kontuan:

• Jorratzen den gaiak zein eragin du GFAren politika publikoetan?
• Gobernuaren agenda politikoan al dago gaia?
• Kontuan hartu da partaidetza bidez landuko den eremuan zein den emakume eta gizonen egoera berezitua, haien behar, arazo eta interesak?
• Emakumeen behar edo interes estrategikoei erantzuten al dio landuko den gaiak?

1.3. HELBURUEN EGOKITASUNA

Prozesu parte-hartzaile baten helburuak modu esplizituan jaso behar dira, eta izan behar dute: modu argian jasoak, ulergarriak eta ulerterrazak. Batetik, prozesuaren diseinu egoki bat ahalbidetzeko, eta, bestetik, nolabait herritarrekiko konpromisoa irudikatzen dutelako. Horrela, helburu orokorrek prozesuaren xedea adierazten dute, aldiz, helburu zehatzek ondorengo aspektuak hartzen dituzte kontuan: esperientziaren irismena, emango diren urratsak eta balioa eman nahi zaien aspektuak. Era berean, helburu zehatzek parte hartzearen inspirazio eta xede diren justizia, inklusio eta banaketa bezalako printzipioak operatibo bilakatzeko aukera ematen dute.

Zer hartuko dugu kontuan:

• Helburu orokor eta zehatzak zehaztu dira?
• Helburu orokor eta zehatzak koherenteak, inklusiboak eta egingarriak dira?
• Helburuen artean jaso dugu gizon eta emakumeen arteko botere desorekan eta berdintasunean eragitea dugula helburu?
• Helburu zehatzetan kontuan hartu dugu kolektibo zaurgarrietako emakumeen egoera eta horietan eragiteko asmoa dugula?
• Helburuak argiak, ulergarriak eta ulerterrazak dira?
• Helburuak neurgarriak dira? Zehaztu dira adierazleak?

1.4. JOKO-ARAUAK

Proiektu guztiek dituzte mugak, baita parte hartzeko prozesu edota proiektuek ere (eskumeneko mugak, aurrekontuarenak, giza eskubideen errespetua…). Mugek modu esplizituan jasoak behar dute izan, prozesu parte-hartzailearen joko zelaia zehazten baitute. Zehaztu behar da prozesuaren irismena zein den eta eztabaidagaia zein den (eta zein ez den), horiek argi komunikatuz.

Zer hartuko dugu kontuan:

• Joko-arauak modu esplizituan jaso dira?
• Horiek komunikatzeko bideak pentsatu dira?
• Zehaztu da zein den prozesuaren irismena (kontsulta, lehenestea, deliberazioa, erabakia eta abar.)

1.5. ITZULERA

Kalitatezko prozesu parte-hartzaile baten diseinuak emaitzen eta eraginen itzulera bat aurreikusi behar du: parte-hartzaileek emaitzak ezagutu eta balidatu ditzaten, baita prozesua amaitutzat eman dezaten ere. Era berean, itzulera oinarrizko gardentasun-ariketa bat da prozesuen legitimitatea bermatzeko eta herritarrek erakundearekiko duten konfiantza handitu dadin. Besteak beste, Partaidetza Arauak, bai Partaidetzazko Deliberaziozko Prozesuetarako bai Herri Kontsultetarako, itzulera-prozedura zehatz bat ezartzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, hain zuzen ere, azal dezan partaidetza-prozesuak politika substantiboan izan duen eragina (18. artikulua eta 23. artikulua).

Zer hartuko dugu kontuan:

• Aurreikusi dira itzulera mekanismoak?
• Modu esplizituan jasotzen dira itzulera-mekanismoak diseinua jasotzen duen dokumentuan?

2. Koherentzia

Prozesuaren helburuek, parte hartzearen irismenak eta horiek lortzeko proposatutako metodologiak ondo uztartuta egon behar dute, haien artean ez da kontraesanik edo gainjartzerik izan behar. Azken batean, metodologiak, parte-hartzaileek izango duten irismen maila aintzat hartuz, prozesuaren xedearen mesedera egokitu beharko du.

Zer hartuko dugu kontuan:

• Helburuen, parte hartzearen irismen eta metodologiaren arteko lotura argia eta logikoa al da?

3. Bideragarritasuna

Parte-hartze prozesua modu egokian garatu ahal izateko ezinbestekoak diren baliabideak aurreikusi eta planifikatu behar dira. Nolabait, aurreikusi eta prozesuaren beharretara egokitu behar dira: batetik, lanean ariko diren pertsonen denborak eta baliabide materialak, eta, bestetik, prozesuaren dinamizazioan arituko den kanpo profesional-taldearen eskarmentua ere.

Zer hartuko dugu kontuan:

• Prozesuan aritu diren pertsonen denborak eta baliabide materialak beharrezkoak izan al dira, esaterako, kanpo-kontratazioak, alokairuak, komunikazioak, joan-etorriak, eta abar?
• Kanpo kontratatutako dinamizazio-taldeak prozesuak eskatzen duen eskarmentua du (fazilitazioa, genero-ikuspegia, euskara, etab.)?

4. Diseinuaren kalitatea

Diseinuaren kalitatean eragiten duten gai ezberdinak identifikatu ditugu eta horien inguruan jardungo dugu hurrengo lerrootan, hain zuzen: lidergoa, zeharkakotasuna, gardentasuna, parte-hartzaileak, parte hartzearen egokitzapen metodologiko eta operatiboa, irisgarritasuna, komunikazioa, ahalduntzea eta ebaluazioa.

4.1. LIDERGOA

Lidergoaz ari garenean komenigarria da borondate eta lidergoaren artean ezberdintzea. Lidergoak harremana du berrikuntza demokratikoak eta, hein batean, Administrazioak eragiten dituen erresistentziekin. Erakunde publikoez ari garenean, pertsonal politiko eta teknikoak izan ditzakeen erresistentziei aurre egiteko konplizitateak, koordinaziorako aukerak eta trebakuntzak ahalbidetzeaz ari gara, baita egitura administratiboen barruan parte hartzeari lekua emateaz.

Zer hartuko dugu kontuan:

• Sustatzaileen adostasun maila: maila politikoan eta teknikoan inplikatutako sailek ekimenarekiko eta egindako diseinuarekiko zein adostasun maila azaldu duten.
• Prozesuaren koordinaziorako egiturarik sortu al da?
• Egiturarik sortu bada, pentsatu al da neurririk egiturok parekideak izateko?
• Egitasmoaren gidaritza eta lidergoan emakumeen partaidetza sustatzeko neurririk aurreikusi da?
• GFAko egituran parte hartzeak duen uztartzea: Lehendik abian ziren parte hartze dinamika edo egiturekin prozesuak izan duen integrazioa.

4.2. ZEHARKAKOTASUNA

Ezinbestekoa izango da, gutxienez, partaidetza prozesuaren eremu substantiboan eragina duten arduradun tekniko eta politikoek lan egiteko koordinazio egiturak sortzea (adibidez: mugikortasunaren inguruko prozesu bat bada, zuzendaritza horretako arduradunekin, edo gazteei zuzendurikoa bada, zuzendaritza horretako arduradunekin), prozesuaren eraginkortasuna eta emaitzen inplementazioa erraztu ahal izateko. Era berean, jarraipenerako tresnak beharko ditu prozesuak xede dituen inklusioa eta gizon eta emakumeen arteko berdintasuna ahalbidetzeko estrategiak zehazteko.

Zer hartuko dugu kontuan:

• Parte-hartze prozesuaren garapenean eta eraginean inplikatuta egon daitezkeen arduradun politiko eta tekniko guztien parte hartzea planifikatu al da?
• Partekatu al da tokian tokiko berdintasun-teknikariekin edo berdintasunaren alde lan egiten duten egitura edo taldeekin (emakume elkarteak, talde feministak…), genero-ikuspegitik elementu gakoak zein izan daitezkeen lantzeko?
• Zer neurri hartuko dira genero ikuspegia kontuan hartzeko? Adibidez: berdintasun eta parte hartze teknikarien arteko koordinazioa, beste esperientzia batzuen ezagutza, kanpo aholkularitza baten kontratazioa, departamentuko berdintasun unitatearekin harremana…

4.3. GARDENTASUNA

Prozesu parte-hartzaileen ezinbesteko baldintza da gardentasuna: helburuak, joko-arauak, irismena, parte hartzeko moduak, emaitzen itzulera zein prozesuan sortutako informazio eta ekarpen guztiei jarraipena egiteko aukera egon behar da, eta eskuragarri egon behar da

Zer hartuko dugu kontuan:

• Prozesu parte-hartzailearen helburu, joko-arau zein irismenaren eta garapenaren inguruko informazioa jendarteratzeko bideak planifikatu al dira?
• Informazioa zabaltzeko formatuak herritarren behar eta oztopoak aintzat hartzen planifikatu al dira?
• Herritarrei zuzendu beharreko dokumentazioa euskaraz eta bi hizkuntza ofizialetan egoteko denbora eta baliabideak planifikatu al dira?
• Prozesua amaitutakoan erabakiaren gaineko kontrola eramateko tresnen sorrera aurreikusi da?

4.4. PARTE-HARTZAILEAK

Parte-hartzaileak definitzerako orduan berebiziko garrantzia izango du prozesuaren eremu substantiboak, hau da: eztabaidagai den gai, arlo edo eremuak. Aitzitik, deliberaziorako arloak direnak direla ere, ezinbestekoa da, gureak bezalako gizarte konplexuetan, parte-hartzaileak hautatzerako orduan ondorengoak kontuan hartzea: aniztasun- eta ezberdintasun-ardatz izan daitezkeen horiek (adina, generoa, klase soziala, jatorria, dibertsitate funtzionala, etab.) eta diskurtso adierazgarrien aniztasuna (parte-hartzaile kopurua baino, eztabaidan parte hartu duten posizio diskurtsiboen dibertsitatea). Hori horrela, diseinuak ez du begi bistatik galdu beharko prozesuaren xede inklusiboa.

Zer hartuko dugu kontuan:

• Parte-hartzaileen hautaketa bat al dator parte hartzearen helburuekin eta oinarri sendoak al ditu (aniztasuna, ordezkagarritasuna, …)?
• Prozesuko eragileak identifikatzerakoan (eragileak, erakundeak, kolektiboak, norbanakoak, …) emakume eta gizonen erreferentziak modu parekatuan bilatu ditugu?
• Tokian tokiko emakume elkarte eta talde feministak identifikatu al ditugu?
• Ikuspegi intersekzional batetik (generoa, adina, klase soziala, arraza, ezgaitasuna, etab.) ohiko erabakiguneetan presentzia eta ordezkaritza ez duten parte-hartzaileengana iristeko bideak aurreikusi al dira?
• Zaurgarritasun egoeran dauden emakumeak identifikatu ditugu?
• Diskurtso-adierazgarrien aniztasuna bermatzeko neurriak hartu dira?

4.5. PARTE HARTZEAREN EGOKITZAPEN METODOLOGIKOA

Prozesua kalitatez garatu ahal izateko prozesuak ondo planifikatua egon beharko du (deliberazio-denborak; kontratazioak, informazioa, etab.)

Zer hartuko dugu kontuan:

• Prozesuaren fase guztietarako denbora-tarte egokiak planifikatu al dira (informazioa, izen-ematea, parte hartze bideak eta horien garapena, ekarpenen balorazioa, itzulera…)?

4.6. IRISGARRITASUNA

Parte hartzea edozein herritarren eskubidea da, eta hala jasotzen du Partaidetza Arauak ere. Hori horrela, prozesuak diseinatzerakoan aintzat hartu behar da edonork parte hartzeko aukera duela nolanahiko gaitasun kognitibo, fisiko, pertsonal edo tekniko dituela. Horregatik, garrantzitsua da prozesuen diseinuan partaidetza galarazten dituen oztopo edo ezberdintasun egoerak aurreikustea, eta horiek saihesteko beharrezko diren baliabideen kudeaketa planifikatzea.

Zer hartuko dugu kontuan:

*• **Irisgarritasun fisikoa:** Gune eta saioetarako irisgarritasuna bermatzeko neurriak planifikatu dira?*
*• **Irisgarritasun kognitiboa:** Giza baliabide eta baliabide teknikoak ezarriko dira herritar guztien parte hartzea ahalbidetzeko?*
*• **Irisgarritasun teknikoa:** Izan daitezkeen arrakalak orekatzeko neurriak hartu dira (ezagutza, arrakala teknologikoa, …)?*

*• **Kontziliaziorako neurriak:** Ordutegi ezberdinak aurreikusi dira, eta zaintza zerbitzuak eskuragarri izango dira?*
*• **Hizkuntza kudeaketa** Euskararen erabilera bermatu ahal izateko neurriak zehaztu dira eta horretarako baliabideak planifikatu?*

4.7. KOMUNIKAZIO PLANA

Komenigarria izaten da partaidetza prozesuak diseinatzerakoan zer, nori, nola eta noiz komunikatu behar den planifikatzea.

Zer hartuko dugu kontuan:

• Komunikazio plan bat diseinatu al da?
• Zaurgarritasun egoeran dauden emakume eta gizonengana iristeko komunikazio-estrategia zehaztu da?
• Antolatu gabeko emakumeengana iristeko moduak zehaztu dira?
• Komunikazio ez-sexista eta barneratzailea bermatzeko neurririk hartu da?
• Komunikazio plana ebaluatzeko adierazleak jaso dira?

4.8. AHALDUNTZEA

Partaidetza prozesuek helburu pedagogikoa izan ohi dute kultura politiko berri bat xede, besteak beste, herritarren eta administrazioaren prestakuntza sendotu dadin lan egiteko asmoa dute. Prozesu parte-hartzaileek, ikasketa-prozesu moduan ulertuak, ondorengoak landu beharko lituzkete: jorratuko den gaiaren inguruko alderdi konplexuenak ulerterraz bihurtzea; parte hartzerako gaitasunak lantzea; administrazio eta egitura politiko zein sozialen oinarri demokratikoen inguruan jardutea, kolektiboki gizarte bereizkeriei aurre egiteko.

Zer hartuko dugu kontuan:

• Prozesuaren arazo nagusiari buruzko prestakuntza aurreikusi da?
• Parte hartzeko trebetasunak garatzeko prestakuntza edo ekintzarik aurreikusi da?



Nola ulertzen ditugu irizpideak?

HEDAPENA

2

Partaidetza prozesuen hedapenaren ebaluazioa egiteaz ari garenean ondorengoari egiten diogu erreferentzia: diseinuaren planifikazioaren gauzatze-mailari eta prozesuak (izan) duen egokitzeko gaitasunari. Hori guztia aztertzeko ondorengoak hartuko ditugu kontuan: prozesuak garapenean izan duen kalitatea, gauzatzea bera eta malgutasuna.

5. Kalitatea prozesuaren garapenean

5.1. BESTE PROZESU BATZUEKIKO SINERGIAK

Prozesu parte-hartzaileak, nolabait esateko, lurralde, erakunde edota eragile ezberdinen "ekosistematan" garatu ohi dira. Hori horrela, garrantzitsua izan ohi da bertan garatu den lanari, lanean ari direnei edota aurretiaz diren egitura parte-hartzaileei aitortza egitea, eta, ahal den heinean, haiekin saretu edota lanerako sinergia berriak sortzea.

Zer hartuko dugu kontuan:

• Sinergiak lortu al dira lurraldeari/GFAri/eragile ezberdinek aurretik sortutako beste prozesuekin?
• Sinergia horiek hobekuntzarik ekarri al diote prozesuari?

5.2. PARTE-HARTZAILEEN BEHAR ETA AGENDATARA EGOKITZEA

Diseinu fasean, prozesuaren erritmo zein denborak planifikatu ahal izateko aurregogoeta bat izan bada ere, prozesuak bere garapenean malgu agertu beharko du parte-hartzaileek eta kudeaketaren ardura duten eragile zein erakundeek izan ditzaketen premia eta eskaerekiko (ordutegiak, agendak, espazio eta baliabideen eskuragarritasuna eta abar).

Zer hartuko dugu kontuan:

• Prozesuko parte-hartzaileek (izan kolektibo, erakunde edota herritarrek) egindako eskaera eta beharretara egokitu al da prozesua?
• Bilerak eta bestelako ekimenak egiterako garaian kontuan hartu da ordutegiek bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna sustatzen duten edo neurri berezirik hartu behar den?

5.3. PROPOSATZEKO AUKERA

Parte-hartze prozesu batek parte-hartzaileei proposamenak egiteko aukera eskaini ahala, herritarren eskubideak zabaltzeko aukera emango du. Proposamenak egiteko aukerak prozesu parte-hartzailearen arrakasta bermatzen ez duen arren, uste dugu administrazioek lan egin beharko luketela herritarrei esleitzen zaien kontsultarako rola gainditu eta haien proposamen ahalmena handitzeko. Aukerak aukera, proposatzeko gaitasun horrek hasieratik esplizitua izan beharko du frustraziorik sor ez dezan: prozesuaren irismena hasieratik zehaztuz eta eztabaidagaien zein eztabaidara aterako ez direnen mugak azalduz.

Zer hartuko dugu kontuan:

• Parte-hartzaileek duten pertzepzioa prozesuan zehar proposamenak egiteko aukeraren inguruan.

5.4. DINAMIZAZIOA

Prozesuaren garapenean eztabaidarako eta erabakiak hartzeko tresna ezberdinak garatu behar dira, guztiok iritziak eman eta entzunak izateko dugun eskubidea bermatu asmoz. Horretarako garrantzitsua da parte-hartzaile oro (dena delakoa izanik ere bere genero, gaitasun, ezagutza edota posizio soziala) modu askean aritzeko giroa sortzea: haien iritzi eta emozioak entzunak izan daitezen, ez daitezen zaurgarri edota kaltetuta sentitu, eta eztabaidaren azken erabaki/errelatoaren parte izan daitezen. Lan hori modu egokian garatu ahal izateko ezinbestekoa izango da dinamizazio lanetan ari diren profesionalen-erakunde kanpo zein barruko–presentzia.

Zer hartuko dugu kontuan:

• Saioetan denen parte hartzea erraztu da?
• Iritzi guztiak kontuan hartu dira?
• Emakumeek prozesuan kalitatez parte har dezaten eta emakumeen ahalduntzean positiboki eragin dezan neurririk jarri da?
• Emakumeen eta gizonen egoera berezituak azaleratzeko eta emakumeen beharrei (ere) erantzungo zaiela bermatzeko neurririk jarri al da?
• Garatu da dinamika edo lanketarik gizonek beren partaidetza-moduen inguruan gogoeta egin eta jarrera-aldaketak bultzatzeko?
• Dinamizazioan arlo emozionalari eta bizi-esperientziari balioa eman zaio?
• Parte-hartzaileok modu askean parte hartzeko aukera izan dutela sentitu dute?
• Nola baloratzen da aniztasunaren kudeaketa?
• Hizkuntzen kudeaketa egokia izan al da?
• Saioak eraginkorrak izan dira?
• Giroa atsegina izan da?
• Saioen gogobetetze maila zein izan da?
• Saioetako balorazioetan sexuaren aldagaia jaso al da ezberdintasun adierazgarririk ba ote den jakiteko? Beste aldagairik jaso da (adina, jatorria, aniztasun funtzionala, ikasketa-maila, …)?

5.5. GENERO-IRAKURKETA

Ezinbestekoa izango da partaidetza prozesuaren garapenean irakurketa eta ekarpenetan genero-ikuspegia txertatzeko bermeak ezartzea: emakumeen eta gizonek baldintza berdinetan parte har dezaten, eta partaidetza prozesuan eztabaidatutakoek genero-eragin positiboa berma dezaten, hau da, emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatu dezaten. Hori horrela, prozesuak aurrera egin ahala komenigarria da jarraian zehazten diren aldagaiei arreta jartzeko moduak zehaztea.

Zer hartuko dugu kontuan:

• Berdintasun edo feminismoaren inguruko prestakuntza duten pertsonen partaidetza sustatu al da?
• Emakumeen eta gizonen ekarpenak, beharrak eta interesak modu berezituan jasotzeko mekanismorik sortu al da?
• Ekarpenak eta proposamenak aztertzeko garaian, emakumeek eta gizonek egindakoak modu berezituan aztertu al ditugu alderik baden identifikatzeko? Eta alderik bada, aldeak non dauden identifikatuz?
• Berdintasunaren kontrako proposamenak, hots, emakumeen eta gizonen rol eta estereotipo sexistak indartu ditzaketenak, egin badira, irizpiderik ezarri da horiek baztertzeko?

• Berariaz, berdintasuna helburu duten edo berdintasuna sustatzen duten proposamenak lehenestea sustatu al da?
• Ekarpenak eta proposamenak lehenesteko garaian, neurririk hartu da emakumeek proposatutakoak eta lehenetsitakoak lekurik izan dezaten?

6. Gauzatzea

Aspektu honi dagokionez, plangintzan jasotako tresnen garapena ebaluatu nahi da. Bereziki, aztertu nahi dira ondorengo bi hauek: aurreikusitakoen eta garapenean erabilitako baliabideen arteko aldea eta aurreikusitakoaren garapen-maila.

Zer hartuko dugu kontuan:

• Planifikatutako eta erabilitako baliabideen artean alderik izan da?
• Zergatik eman da aldea?
• Fase bakoitzean egokitzapenak izan dira?
• Egon diren egokitzapenak prozesuaren mesedetan izan dira?
• Baliabide teknologiko zein digitalak nahikoak eta egokiak izan al dira?
• Komunikazio planean egokitzapenak izan al dira?

7. Malgutasuna

Diseinuan aurreikusitakoak inplementatzen diren heinean, aurreko hainbat puntutan aipatu moduan, aldaketak izan ohi dira: parte-hartzaileen behar eta agendatara egokitzeko, saioetako balorazioak ikusirik hautatutako parte-hartzerako teknika edota tresnak egokitu behar direlako…. Horien guztien gaineko erabakiak hartu ahal izateko ezinbestekoa izango da prozedura, egitura eta jarraipenerako tresnak diseinatzea.

Zer hartuko dugu kontuan:

• Jarraipenerako edo doitzeko prozedurak izan al dira eskaerak, arazoak edota plangintzak betetzen ez direnerako?



Nola ulertzen ditugu irizpideak?

EMAITZAK ETA ERAGINAK

3

Prozesuaren emaitzak eta eraginak neurtzerakoan ondorengo irizpideetan jarriko dugu arreta: prozesuaren eraginkortasuna, efizientzia eta eraginak. Prozesuaren arrakasta baloratzeko ezinbesteko fasea izango da hau. Bertan, izango dugu aukera: helburuen gogobetetze maila zein izan den ezagutzeko, parte hartzeak proiektuan izan duen eragina balioan jartzeko eta parte-hartze prozesuak kultura politiko berri baten eraikuntzan ekarpenik egin duen ezagutzeko. Azken fase honetako balorazioa egin ahal izateko ezinbestekoa izango da prozesuaren sustatzaile, kudeatzaile eta parte-hartzaile moduan aritu diren guztiak entzuteko aukera izatea, eta, ahal dela, elkarri entzuteko espazioak zabaltzea.

8. Eraginkortasuna

8.1. HELBURUEN BETETZEA

Hasieran zehaztu dugun moduan proiektuak ematen dio zentzua prozesu parte-hartzaileari, eta hasierako intentzio hori helburuetan jasoa izan da. Herritarrekin hartutako konpromisoak zein mailatan bete diren aztertuko dugu helburuak ebaluatzerakoan.

Zer hartuko dugu kontuan:

• Helburuak diseinuan zehaztutako aldagaien bitartez ebaluatu al dira?
• Erdietsi ez diren helburuen zergatia zehaztu al da? Hobekuntzarako proposamenik identifikatu da?
• Lortu al da gizon eta emakumeen arteko botere desorekan eta berdintasunean eragitea?
• Kolektibo zaurgarrietako emakumeen egoeran eragin al da?

8.2. JOKO-ARAUEN BETETZEA

Sarri entzuten da joko-arau garbi eta esplizituak izatea eta parte-hartzaileek hala jasotzea partaidetza prozesuek sor dezaketen frustrazioa mugatzeko elementu nagusienetako bat dela. Hori horrela, garrantzitsua da hauek prozesuan zehar bere horretan mantentzea.

Zer hartuko dugu kontuan:

• Joko-arauetan zehaztutako konpromisoak bete al dira?

8.3.IRISGARRITASUNA ETA INPLIKAZIOA

Irizpide honetan zenbat pertsona edota eragile inplikatu diren eta haien ezaugarri nagusienak zeintzuk diren aztertuko dugu. Berariaz aztertuko dugu parte-hartzaile potentzialen eta arlo honetan zehaztutako helburuen arteko lorpena. Era berean, izandako parte hartzearen kalitatea aztertuko dugu, prozesuaren diseinuan zehaztutako norabide berean.

Zer hartuko dugu kontuan:

Parte hartzeari buruzko helburuei dagokienean:
• Erreferentziazko biztanleriarekiko zenbatek parte hartu du?
• Gonbidatutakoetatik zenbatek parte hartu du?
• Zenbat gizon eta emakumek?
• Zein izan da gonbidatu eta parte hartzea erabaki duten emakume eta gizonen ehuneko? Alderik bada?
• Zenbat elkartek parte hartu du? Zein motatakoek? Zenbat elkartetako buruzagik? Erreferentziazko populaziotik zenbatek?
• Zenbat emakume elkarte eta talde feministek hartu dute parte?
• Zenbat parte-hartzaile izan dira hasieran? Eta amaieran?
• Parte hartzearen bilakaeran izan al da emakume eta gizonen arteko alderik?
• Nola baloratzen dute parte-hartzaileek bertaratzea? Alderik bada emakume eta gizonen balorazioetan?

Parte hartzearen kalitatearen inguruan (irekiera maila, aniztasuna edo irisgarritasuna):
• Gizatalde profil ezberdinak hartu al dute parte?
• Adin tarte ezberdinetako emakumeek parte hartu dute?
• Ohiko erabakiguneetan presentzia ez duten gizataldeak parte hartu al dute?
• Zaurgarritasun egoeran dauden emakume eta gizonek parte hartu dute? Zenbat emakumek?
• Jendartean dauden diskurtso ezberdinak entzuteko aukera izan al da?
• Irisgarritasun fisikoa ahalbidetu da?
• Irisgarritasun kognitiboa oztopo izan al da?
• Irisgarritasun teknikoa kontuan hartu al da?
• Herritarrek hautatutako hizkuntzan parte hartzeko aukera izan al dute?

8.4. ITZULERA

Ezinbesteko gardentasun-ariketa bat da prozesu parte-hartzaileetan itzulera, hau da, esperientzian zehar egin diren saio ezberdinetan atera diren ideia nagusiak herritarrei itzultzeko saiakera. Komenigarria da, gida honetan aurreikusi dugun moduan, une bakoitzaren amaieran edo une esanguratsuenetan itzulketa txikiak egitea. Era berean, gomendagarria da itzulketa irekiak egitea egindako bidearen inguruko hobekuntzak txertatzeko aukera eskainiko dutenak.

Zer hartuko dugu kontuan:

• Itzulera saiorik izan al da?
• Zenbat izan dira?
• Informatzaileak edo parte hartzekoak izan dira?
• Parte-hartzaileek izan al dute ekarpenak edo iradokizunak txertatzeko aukera?
• Prozesuaren amaierako txostena(k) edota komunikazioa(k) eskuragarri izan dira edonorentzat?
• Parte-hartzaileek ordezkatua sentitu al duten euren burua?
• Alderik izan da emakume eta gizonen arteko balorazioetan? Alderik izan bada, aipatzen al da hori azaltzeko arrazoirik?

9. Efizientzia

Prozesuak izan duen kostuaren inguruko balorazioa egitea egokituko litzateke, hori arrazoizkoa izan den aztertu ahal izateko.

Zer hartuko dugu kontuan:

• Zenbateko kostua izan du prozesuak?
• Zein giza baliabide izan ditu prozesuak (GFA kanpo eta barrukoak)?
• Egokiak eta nahikoak izan al dira erabilitako baliabideak horien kostuak kontuan hartuta?

10. Eragina

Partaidetza prozesuak izan duen eragina neurtzeko 4 eragin-eremuko sailkapena egin dugu: GFAn izandako eragina, parte-hartzaileengan izan duen eragina, helburuko politika/plan edota zerbitzuan izandako eragina eta kultura politikoan izan duen eragina.

10.1. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAN ERAGINA

Parte-hartzeak talka egin ohi du erakundeek bere egitura eta antolaketa kulturan aldaketak txertatzeko dituzten hainbat arazorekin. Norabide horretan, parte hartzeak antolaketa eredu berriak erakusten ditu eta egin dezake ekarpenik helburu den aldaketa horretan. Izan ere, prozesu parte-hartzaileek ezagutza teknikoak (ezagutzen sistematizazioa) eta ezagutza adituak (esperientziak ematen duena) elkar aitortzeko aukera eskaintzen du, baita politika publikoen legitimazioa handitzekoa ere.

Zer hartuko dugu kontuan:

• Organo eskuduneko arduradun politiko eta teknikoek baliagarritzat jotzen dute prozesua?
• Erakunde barruko harremanak hobetu al dira?
• Talde eragilean parte hartu duten langileek parte hartzearen inguruko eta esperientzia areagotu dutela pentsatzen al dute?

10.2. ERAGINAK PARTE-HARTZAILEENGAN

Prozesu parte-hartzailea kalitatez garatu bada parte-hartzaileek aukera izan dute: ezagutza eta esperientzia eskuratzeko, harreman berriak edo estuagoak garatzeko, erakundearekiko konfiantza garatzeko. Kontrara, prozesuaren kalitate ezak eragin zuzena zango du, besteak beste, erakundearekiko mesfidantzan.

Zer hartuko dugu kontuan:

Norbanako mailan:
• Gizarte trebetasunak garatzeko aukera izan al dute?
• Ikasteko aukera izan al dute (gauzak beste era batera ulertu eta egitekoa)?
• Ahaldunduta sentitu al dira?
• Alderik izan da emakume eta gizonen arteko balorazioetan? Alderik izan bada, aipatzen al da hori azaltzeko arrazoirik?

Harremanei dagokionean:
• Eragileen arteko harremanak hobetzea lortu al da?
• Sare berriak sortu al dira? Nor dago barruan eta nor kanpoan?
• Aliantza berririk sortu da emakume mugimenduaren eta gainerako eragileen artean?
• Posizio ahulenean daudenen presentzia, baliabideak edota eragina areagotu al da?
• Alderik izan da emakume eta gizonen arteko balorazioetan? Alderik izan bada, aipatzen al da hori azaltzeko arrazoirik?

10.3. ERAGINAK HELBURUKO POLITIKA/ PLAN EDO ZERBITZUETAN

Ezinbestekoa da parte-hartze prozesuak helburuko politika/planean edota zerbitzuan izan duen eragina neurtzea. Parte-hartze prozesuaren beraren eraginkortasuna neurtzeko adierazle nagusienetako bat da hau.

Zer hartuko dugu kontuan:

• Eztabaidagai izan den horretan edota agenda politikoko gai esanguratsuetan eragitea lortu al da?
• Zein izan da emaitzen ezarpen-mailaren neurria: aldaketak izan al dira? Zein motatakoak?
• Emaitzak eragina izan al du saileko aurrekontuan?
• Inpaktuen jarraipena egiteko organo edo arduradunik ezarri al da?
• Aztertu da azken erabakiak zein onura ekarriko dien gizon eta emakumeei?
• Aztertu da azken erabakiak lagunduko ote duen emakumeek gizonekiko duten egoera desorekatua hobetzen?
• Aztertu da azken erabakiak ezberdintasun sozialak arintzeko eta inklusiorako oztopo gehien izan ditzaketen kolektiboen parte hartze soziala handitzeko balioko ote duen?
• Aztertu da azken erabakiak emakumeei eta gizonei lotutako arau sozial, balio eta aurreiritziak gainditu edo aldatzeko balioko duen?
• Ezarri da neurri zuzentzailerik emakumeen posizio soziala indartzeko eta bereizkeriei aurre egiteko?

10.4. KULTURA POLITIKOAN ERAGINA

Prozesu parte-hartzaileen bitartez kultura politiko parte-hartzailea sendotzea dugu helburu. Garatu den prozesu parte-hartzaileak kultura politiko berri horren eraikuntzan izan duen eragina neurtu ahal izateko, ezinbestean, parte hartu duten haien balorazioetan sakondu beharko du.

Zer hartuko dugu kontuan:

Oro har:
• Itzulera faserik izan den.
• Parte hartzearen beharraren inguruan adostasunik izan den.
• Administrazioaren eta herritarren arteko harremanak hobetu diren.
• Berrikuntzarako tartea izan den (gaia, tresnak, deitutako taldeak…)

Parte-hartzaileen pertzepzioa:
• Prozesua erabilgarria iruditu al zaie?
• Prozesuaren kudeaketa egokia ala desegokia izan al da?
• Hizkuntzen kudeaketa egokia ala desegokia izan al da?
• Prozesua gardena iruditu al zaie?
• Burokratizatzeko edo independentzia galtzeko arriskurik sentitu al dute?
• Berriro parte-hartzeko gogorik al dute?
• Prozesuak sortutako espektatibak zein neurritan bete dira?
• Alderik izan da emakume eta gizonen arteko balorazioetan? Alderik izan bada, aipatzen al da hori azaltzeko arrazoirik?

10.5. GENERO ERAGINA

• Partaidetza prozesua abian jartzean, gauzatzean eta ebaluatzean genero ikuspegia txertatzen dela bermatuko da. Era berean, Partaidetza Arauak bere 50.5 artikuluan zehaztu moduan partaidetza prozesuan izandako jarduerek eragindako genero inpaktuaren eta ateratako konklusioen berri emango da. Foru Arauak zehazten duen moduan, genero-inpaktua aztertu ahal izateko berariaz erabiliko ditugun aldagaien bilduma bat proposatzen dugu gida honen amaieran.

03

EBALUAZIO ALDAGAIAK

0.Protokoloa
Ekarpenik izan al den, onartu diren eta zein eragin izan duen

DISEINUA ETA PLANIFIKAZIOA

1

1. Egokitasuna

1.1. ESKUMENA
Eztabaidagaia GFAren eskumenekoa da.

1.2. GARRANTZIA
1.2.a. Eztabaidaren eragina/pisua GFAren politikan.
1.2.b. Eztabaidagaiak izan dezakeen genero-eraginaren aurre-azterketa egin da.

1.3. HELBURUEN EGOKITASUNA
1.3.a. Helburu orokorrak koherenteak, inklusiboak eta egingarriak dira.
1.3.b. Helburu zehatzak zehaztu dira eta koherenteak, inklusiboak eta egingarriak dira.
1.3.d. Genero-ikuspegia zeharkakotasunez txertatu da helburuetan.
1.3.e. Helburuak argiak, ulergarriak eta ulerterrazak dira.
1.3.f. Helburuak ebaluatzeko adierazleak zehaztu dira.

1.4. JOKO-ARAUAK
Deliberazio prozesuaren joko-arauak modu esplizituan jaso dira Protokoloan: parte hartzearen irismena eta eztabaidagaiak eta eztabaidatuko ez direnak.

1.5. ITZULERA
Prozesuaren emaitzen itzulera egiteko prozedurak modu esplizituan jaso dira Protokoloan.

2. Koherentzia
Helburu, parte hartzearen irismenaren eta metodologiaren arteko lotura argia eta logikoa da.

3. Bideragarritasuna

3.1. PROZESUARI LOTUTAKO BALIABIDEAK:
Prozesuan aritu diren pertsonen denborak eta baliabide materialak beharrezkoak dira, esaterako, kanpo-kontratazioak, alokairuak, komunikazioak, joan-etorriak…

3.2. KANPO KONTRATAZIOAREN ESKARMENTUA:
Kanpo kontratatutako dinamizazio-taldek prozesuak eskatzen duen eskarmentua du (fazilitazioa, genero-ikuspegia, euskara etab.)

4. Kalitatea

4.1. LIDERGOA
Sustatzaileen adostasun maila eta erakunde barruan txertatzea:

4.1.a. Adostasuna:
4.1.a.1. Maila politikoan inplikatutako sailen adostasuna izan du diseinuak.
4.1.a.2 . Maila teknikoaren onespena du diseinuak.
4.1.a.3. Talde eragilearen onespena du diseinuak.
4.1.a.4. Gidaritza egituratan emakumeen partaidetza sustatzeko neurriak hartu dira.

4.1.b. GFAn txertatzea:
4.1.b.1. Lehendik dauden parte hartze dinamikekin integratu da prozesua.

4.2. ZEHARKAKOTASUNA
Prozesuaren garapenean eta eraginean inplikatuta egon daitezkeen arduradun guztien partea hartzea planifikatu da:
4.2.a. Maila politikoan ardurak, denborak eta jarraipenerako egiturak planifikatu dira..
4.2.b. Maila teknikoan ardurak, denborak eta jarraipenerako egiturak planifikatu dira.
4.2.d. Berdintasun ikuspegitik eginda dagoela bermatzeko neurriak zehaztu dira.

4.3. GARDENTASUNA
4.3.a. **Jendarteratzea:** Prozesuaren informazio guztia jendarteratu dela eta eskuragarri izan dela baloratu da.
4.3.b. **Eskuragarritasuna:** Informazioa zabaltzeko formatuak herritarren behar eta oztopo guztietara egokitu dira.
4.3.d. **Hizkuntza hautua:** Herritarrei zabaldutako informazioa bi hizkuntza ofizialetan egoteko denbora eta baliabideak aurreikusi dira.
4.3.e. **Emaitzen jarraipena:** Esperientzia amaitutakoan adostutakoari buruzko kontrola eramateko tresna aurreikusi da.

4.4. PARTE-HARTZAILEAK
4.4.a. **Inklusiboa:** Parte-hartzaileen hautaketa bat dator parte hartzearen helburuekin eta oinarri sendoak ditu (aniztasuna, ordezkagarritasuna…)
4.4.b. Prozesuko eragileak identifikatzerako garaian **emakume eta gizonen erreferentziak modu parekatuan** identifikatu dira.
4.4.d. **Gonbidatutakoen** parte hartze **kopurua** zein izan den.
4.4.e. Parte-hartzaileen identifikazioan diskurtsoei dagokienean eragileen **aniztasuna** (ikuspegi ezberdinak) bermatu dira
4.4.f. Emakume elkarte eta talde feministak gonbidatu dira.
4.4.g. Parte-hartzaileak identifikatzerakoan **aniztasuna ikuspegi intersekzionaletik** (generoa, adina, klase soziala, arraza, ezgaitasuna, hautu sexuala…) aztertu da.

4.5. PARTE HARTZEAREN EGOKITZAPEN METODOLOGIKOA ETA OPERATIBOA

4.5. Prozesuaren fase guztietarako denbora-tarte egokiak aurreikusi dira (materiala prestatzea, protokoloaren alegazioak, parte hartzeko izen-ematea, gonbidapenak, garapena, ekarpenen balorazioa eta itzulketa...)

4.6. IRISGARRIA:

Metodologia egokitu da helburura eta parte-hartzaileen ezaugarrietara:

4.6.a. **Irisgarritasun fisikoa:** Gune eta saio ezberdinetarako irisgarritasun fisikoa bermatu da.

4.6.b. **Irisgarritasun kognitiboa:** Herritar guztien partaidetza bermatzeko giza baliabide eta baliabide teknikoak eskuragarri jarri dira.

4.6.d. **Irisgarritasun teknikoa:** Izan daitezkeen arrakalak (teknologikoa adibidez) gainditzeko neurriak egon dira.

4.6.e. **Kontziliaziorako neurriak:** Ordutegi ezberdinak eta zaintza zerbitzuak jarri dira.

4.6.f. **Hizkuntza kudeaketa** egoki baloratu da.

4.7. KOMUNIKAZIO PLANA

4.7.a. Komunikazio plana diseinatu eta jaso da Protokoloan.

4.7.b. Komunikazio plan ez sexista eta barneratzailea izateko neurriak hartu dira.

4.7.d. Zaurgarritasun egoeran dauden emakume eta gizonengana iristeko estrategiak zehaztu dira.

4.7.e. Komunikazio planaren helburuak neurtzeko adierazleak jarri dira.

4.8. AHALDUNTZEA

4.8.a. **Prestakuntza:** Prozesuaren arazo nagusiari buruzko prestakuntza aurreikusi da.

4.8.b. Eskainitako prestakuntza **baliagarria** da parte hartzeko.

4.8.d. Parte-hartzaileen **ezagutza zabaltzeko baliagarria** da.

4.8.e. Parte-hartzaileen **partaidetza-trebetasunak garatzeko** baliagarria izan da.

4.9. EBALUAZIOA

4.9.a. Ebaluazioa planifikatu da.

4.9.b. Jarraipen eta ebaluaziorako aurreikusitako tresna guztietan datuak sexuka bereiziko dira.

4.9.d. Genero-inpaktua neurtzeko aldagaik zehaztu dira.

HEDAPENA

5. Prozesuaren kalitatea garapenean

5.1. BESTE PROZESUEKIKO SINERGIAK
Sinergiak lortu dira lurraldeari/GFAri/ eragileei eragiten dieten beste prozesuekin.

5.2. PARTE-HARTZAILEEN AGENDA ETA BEHARRETARA EGOKITZEA
5.2.a. Prozesuan parte hartu duten parte-hartzaileek eta kolektiboek egindako eskaera eta beharretara egokitu da prozesua.
5.2.b. Ordutegiek bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna sustatu dute.

5.3. PROPOSATZEKO AUKERA
5.3. Parte-hartzaileek proposamenak egiteko aukera izan dutela uste dute.

5.4. DINAMIZAZIOA
5.4.a. Deliberazio saioetan denen parte hartzea erraztu da (parte hartzeko denborak ondo banatu dira; arlo emozionalari eta bizi-esperientziari balioa eman zaio….
5.4.b. Iritzi guztiak hartzen dira aintzat.
5.4.d. Emakumeen eta gizonen egoera berezituak azalarazteko neurriak hartu dira.
5.4.e. Saioak eraginkorrak izan dira.
5.4.f. Giroa atsegina izan da.
5.4.g. Saioetako balorazioetan sexu aldagaia jaso da, alde adierazgarririk baden jakiteko.
5.4.h. Hizkuntzen kudeaketa egokia izan da.
5.4.i. Aniztasunaren kudeaketa egokia izan da.

5.5. GENERO-IRAKURKETA
5.5.a. Gizon eta emakumeen ekarpenak modu berezituan jaso, eta horien interpretazioa egin da.
5.5.b. Berdintasunaren kontrako ekarpenak baztertu dira.
5.5.d. Berdintasuna helburu duten proposamenak lehenestea sustatu da.

6. Gauzatzea

6.1. Planifikatutako eta erabilitako baliabideen aldea.
6.2. Fase bakoitzaren planifikazioan izandako aldaketak prozesuaren mesedetan izan dira.
6.3. Baliabide teknologiko eta digitalak egokiak izan dira.
6.4. Komunikazio plana modu egokian garatu da.

7. Malgutasuna

7.1 Jarraipenerako edo doitzeko prozedurak izan dira eskaerak, arazoak edota plangintza betetzen ez denerako.

EMAITZAK ETA ERAGINAK

3

8. Eraginkortasuna

8.1. HELBURUEN BETETZEA:

8.1.a. Helburuak ebaluatu dira diseinuan zehaztutako aldagaien bitartez.
8.1.b. Helburuak bete dira.
8.1.d. Bete ez diren helburuen zergatia zehaztu da, eta hobekuntzarako proposamenak identifikatu dira.

8.2. JOKO-ARAUEN BETETZEA:

Joko-arauetan zehaztutako konpromisoak bete dira.

8.3. IRISGARRITASUNA ETA INPLIKAZIOA:

Zenbat pertsona inplikatu diren eta haien ezaugarri nagusienak. Parte-hartzaile potentzialen eta zehaztutako helburuen arteko lorpena (irisgarritasun fisiko, kognitibo, teknikoa)

8.3.a. **Parte hartzeari buruzko helburuak:**
1. Erreferentziazko biztanleriarekiko zenbatek parte hartu duten. Zenbat gonbidatu, zenbat izen emate eta zenbatek parte hartu duten.
2. Zenbat gizon eta emakumek, irakurketa konparatua.
3. Zenbat elkartek parte hartu dute: zein motatakoak; zenbat elkarteetako buruzagik parte hartu dute; erreferentziazko biztanleriarekiko zenbatek parte hartu du.
4. Zenbat parte-hartzaile izan dira hasieran eta zenbat amaieran. Bilakaeraren azalpena.
5. Nola baloratzen dute parte-hartzaileek bertaratzea.

8.3.b. **Kalitatea (irekiera maila, aniztasuna edo irisgarritasuna):**
1. Gizarte-taldeen profil ezberdinak parte hartu dute.
2. Irisgarritasun fisikoa ahalbidetu da.
3. Irisgarritasun kognitiboa ez da oztopo izan.
4. Irisgarritasun teknikoa kontuan hartu da

8.4. ITZULERA

8.4.a. Itzulera izan da eta hauen kopurua: informazioa emateko edo parte hartzekoak izan dira.
8.4.b. Prozesuak politikan izan duen eragina azaltzeko aukera izan da.
8.4.d. Parte-hartzaileen ekarpen eta iradokizunak txertatzeko aukera izan da (sexukako interpretazioa).
8.4.e. Parte-hartzaileek ordezkatua sentitu dute euren burua (sexukako interpretazioa).

9. Efizientzia

9.5. Prozesuaren kostuak: zenbateko aurrekontua izan du prozesuak.
9.6. Zein giza baliabide izan ditu prozesuak: kanpokoak eta barrukoak.

10. Eraginak

10.1. ERAGINAK GFAN

10.1.a. Organo eskuduneko arduradun politiko eta teknikoek baliagarritzat eman dute prozesua.
10.1.b. Erakunde barruko harremanak hobetu dira.
10.1.d. Talde eragilean parte hartu duten langileek parte hartzearen inguruko ezagutza eta esperientzia areagotu dutela pentsatzen dute.

10.2. ERAGINAK PARTE-HARTZAILEENGAN

10.2.a. Norbanako mailan (sexukako interpretazioa):
1. Gizarte trebetasunak garatu dituzte.
2. Ikasteko aukera izan dute, gauzak beste era batera ulertu eta egitekoa.
3. Ahaldunduta sentitu dira.

10.2.b. **Harremanak:**
1. Eragileen arteko harremanak hobetzea lortu da.
2. Sareak sortu dira (nor dago barruan eta nor kanpo).
3. Posizio ahulenean daudenen presentzia, baliabideak edota eragina areagotu da.
4. Parte-hartzaileen ustez harremanak hobetzeko egin daitekeena

10.3. ERAGINAK HELBURUKO POLITIKA/ PLAN EDO ZERBITZUAN

Parte hartzeak helburuko politika/planean edota zerbitzuan izan duen eraginaren balorazioa:

10.3.a. Eztabaidagai izan den horretan edota agenda politikoko gai esanguratsuetan eragitea lortu da.
10.3.b. Emaitzen ezarpen mailaren neurria (aldaketak izan al diren eta zein motatakoak)
10.3.d. Emaitzak zein eragin izan du saileko aurrekontuan edota eztabaidagai izan den politikan.
10.3.e. Azken erabakiak izango duen genero-inpaktua neurtu da.
10.3.f. Inpaktuen jarraipena egiteko organo edo arduradunik ezarri da.

10.4. KULTURA POLITIKOAN ERAGINA

10.4.a. Itzulera fasea izan den
10.4.b. Parte hartzearen beharraren inguruan adostasuna izan da.
10.4.d. Administrazioa eta herritarren arteko harremanak hobetu dira.
10.4.e. Berrikuntzarako tartea izan da (gaia, tresnak, deitutako taldeak).
10.4.f. **Parte-hartzaileen balorazioa (sexukako interpretazioa):**
1. Prozesuaren erabilgarritasuna.
2. Kudeaketa egokia edo desegokia izan da.
3. Hizkuntzen kudeaketa egokia edo desegokia izan da.
4. Esperientziaren gardentasun maila.
5. Burokratizatzeko edo independentzia galtzeko arriskurik izan al da.
6. Berriro parte hartzeko gogoa.
7. Gogobetetze maila.

PARTAIDETZA PROZESUAK EBALUATZEKO GIDA 03 EBALUAZIO ALDAGAIAK

04

GENERO AZTERKETARAKO ALDAGAIAK

DISEINUA ETA PLANIFIKAZIOA

1

1. Egokitasuna

1.2. GARRANTZIA

1.2.b. **Eztabaidagaiak izan dezakeen genero-eraginaren aurre-azterketa egin da:**

Kontuan hartu da partaidetza bidez landuko den eremuan zein den emakume eta gizonen egoera berezitua, haien behar, arazo eta interesak?

Emakumeen behar edo interes estrategikoei erantzuten al dio landuko den gaiak?

1.3. HELBURUEN EGOKITASUNA

1.3.d. **Genero–ikuspegia zeharkakotasunez txertatu da helburuetan:**

Helburuen artean jaso dugu gizon eta emakumeen arteko botere desorekan eta berdintasunean eragitea dugula helburu?

Helburu zehatzetan kontuan hartu dugu kolektibo zaurgarrietako emakumeen egoera eta horietan eragiteko asmoa dugula?

3. Bideragarritasuna

3.2. KANPO KONTRATAZIOAREN ESKARMENTUA:

3.2. **Kanpo kontratatutako dinamizazio-taldeak prozesuak eskatzen duen eskarmentua du (fazilitazioa, genero-ikuspegia, euskara etab.):**

Berdintasun edo feminismoaren inguruko prestakuntza duten pertsonek bideratu dute partaidetza prozesua?

4. Kalitatea

4.1. LIDERGOA

4.1.a.4. **Gidaritza egituratan emakumeen partaidetza sustatzeko neurriak hartu dira:**

Prozesuaren koordinaziorako egiturarik sortu al da?

Egiturarik sortu bada, pentsatu al da neurririk egiturok parekideak izateko?

Egitasmoaren gidaritza eta lidergoan emakumeen partaidetza sustatzeko neurririk aurreikusi da?

4.2. ZEHARKAKOTASUNA

4.2.d. **Berdintasun ikuspegitik eginda dagoela bermatzeko neurriak zehaztu dira**

Partekatu al da tokian tokiko berdintasun-teknikariekin edo berdintasunaren alde lan egiten duten egitura edo taldeekin (emakume elkarteak, talde feministak…), genero-ikuspegitik elementu gakoak zein izan daitezkeen lantzeko?

Zer neurri hartu dira berdintasun ikuspegia kontuan izateko prozesuan?

4.4. PARTE-HARTZAILEAK:

4.4.b. **Prozesuko eragileak identifikatzerako garaian emakume eta gizonen erreferentziak modu parekatuan identifikatu dira:**

4.4.f. **Emakume elkarte eta talde feministak gonbidatu dira:**

Tokian tokiko emakume elkarte eta talde feministak identifikatu al ditugu?

4.4.g. **Parte-hartzaileak identifikatzerakoan aniztasuna ikuspegi intersekzionaletik (generoa, adina, klase soziala, arraza, ezgaitasuna, hautu sexuala…) aztertu da:**

Zaurgarritasun egoeran dauden emakumeak identifikatu ditugu?

4.7. KOMUNIKAZIO PLANA

4.7.b. **Komunikazio plan ez sexista eta barneratzailea izateko neurriak hartu dira:**

Zaurgarritasun egoeran dauden emakume iristeko komunikazio-estrategia zehaztu da?

Antolatu gabeko emakumeengana iristeko moduak zehaztu dira?

Komunikazio ez-sexista eta barneratzailea bermatzeko neurririk hartu da?

4.9. EBALUAZIOA

4.9.b. **Jarraipen eta ebaluaziorako aurreikusitako tresna guztietan datuak sexuka bereiziko dira.**

4.9.d. **Genero-inpaktua neurtzeko aldagaiak zehaztu dira.**

HEDAPENA

2

5. Prozesuaren kalitatea garapenean

5.2. PARTE-HARTZAILEEN AGENDA ETA BEHARRETARA EGOKITZEA

5.2.b. Ordutegiek bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna sustatu dute:

Bilera edo bestelako ekimenak garatzeko kontuan hartu da bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna sustatzen duten neurri berezirik hartu behar den?

Zaintza zerbitzurik izan da?

5.4. DINAMIZAZIOA

5.4.a. Deliberazio saioetan denen parte hartzea erraztu da (parte hartzeko denborak ondo banatu dira; arlo emozionalari eta bizi-esperientziari balioa eman zaio….

Dinamizazioan arlo emozionalari eta bizi-esperientziari balioa eman zaio?

5.4.d. Emakumeen eta gizonen egoera berezituak azalarazteko neurriak hartu dira:

Emakumeen eta gizonen egoera berezituak azaleratzeko eta emakumeen beharrei (ere) erantzungo zaiela bermatzeko neurririk jarri al da?

Garatu da dinamika edo lanketarik gizonek beren partaidetza-moduen inguruan gogoeta egin eta jarrera-aldaketak bultzatzeko?

5.4.g. Saioetako balorazioetan sexu aldagaia jaso da, alde adierazgarririk baden jakiteko.

5.5. GENERO-IRAKURKETA

5.5.a. Gizon eta emakumeen ekarpenak modu berezituan jaso, eta horien interpretazioa egin da.

Berdintasun edo feminismoaren inguruko prestakuntza duten pertsonen partaidetza sustatu al da?

Emakumeen eta gizonen ekarpenak, beharrak eta interesak modu berezituan jasotzeko mekanismorik sortu al da?

Ekarpenak eta proposamenak aztertzeko garaian, emakumeek eta gizonek egindakoak modu berezituan aztertu al ditugu alderik baden identifikatzeko? Eta alderik bada, aldeak non dauden identifikatuz?

5.5.b. Berdintasunaren kontrako ekarpenak baztertu dira.

Berdintasunaren kontrako proposamenak, hots, emakumeen eta gizonen rol eta estereotipo sexistak indartu ditzaketenak, egin badira, irizpiderik ezarri da horiek baztertzeko?

5.5.d. Berdintasuna helburu duten proposamenak lehenestea sustatu da.

Berariaz, berdintasuna helburu duten edo berdintasuna sustatzen duten proposamenak lehenestea sustatu al da?

Ekarpenak eta proposamenak lehenesteko garaian, neurririk hartu da emakumeek proposatutakoak eta lehenetsitakoak lekurik izan dezaten?

EMAITZAK ETA ERAGINAK

3

8. Eraginkortasuna

8.1. HELBURUEN BETETZEA:

Lortu al da gizon eta emakumeen arteko botere desorekan eta berdintasunean eragitea?

Kolektibo zaurgarrietako emakumeen egoeran eragin al da?

8.3. IRISGARRITASUNA ETA INPLIKAZIOA:

8.3.a. Parte hartzeari buruzko helburuak:

1. Erreferentziazko biztanleriarekiko zenbatek parte hartu duten.
Zenbat gonbidatu, zenbat izen emate eta zenbatek parte hartu duten.

Gonbidatutako zenbat emakumek hartu dute? Eta zenbat gizonek?

Zein izan da gonbidatu eta parte hartzea erabaki duten emakume eta gizonen portzentaia? Alderik bada?

2. Zenbat gizon eta emakumek.

Gizon eta emakumeek modu parekatuan parte hartu dute?

3. Zenbat elkartek parte hartu dute: zein motatakoak; zenbat elkarteetako buruzagik parte hartu dute; erreferentziazko biztanleriarekiko zenbatek parte hartu du.

Zenbat emakume elkarte eta elkarte feministek parte hartu dute?

4. Zenbat parte-hartzaile izan dira hasieran eta zenbat amaieran. Bilakaeraren azalpena.

Parte hartzearen bilakaeran izan al da emakume eta gizonen artean alderik?

5. Nola baloratzen dute parte-hartzaileek bertaratzea.

Alderik izan da emakume eta gizonen arteko balorazioetan?

8.3.b. Kalitatea (irekiera maila, aniztasuna edo irisgarritasuna)
1. Gizarte-taldeen profil ezberdinak parte hartu dute.

Zaurgarritasun egoeran dauden emakumeek parte hartu dute?

Adin-talde ezberdinetako emakumeek parte hartu dute?

8.4. ITZULERA

8.4.d. Parte-hartzaileen ekarpen eta iradokizunak txertatzeko aukera izan da.

8.4.e. Parte-hartzaileek ordezkatua sentitu dute euren burua.

Alderik izan da emakume eta gizonen arteko balorazioetan?

Alderik izan bada, zein izan da? aipatzen al da hori azaltzeko egon daitekeen arrazoirik?

10. Eraginak

10.2. ERAGINAK PARTE-HARTZAILEENGAN:

10.2.a. Norbanako mailan:
1. Gizarte trebetasunak garatu dituzte.
2. Ikasteko aukera izan dute, gauzak beste era batera ulertu eta egitekoa.
3. Ahaldunduta sentitu dira.

Alderik izan da emakume eta gizonen arteko balorazioetan?

Alderik izan bada, zein izan da? aipatzen al da hori azaltzeko egon daitekeen arrazoirik?

10.2.b. Harremanak:

2. Sareak sortu dira (nor dago barruan eta nor kanpo)

Aliantza berririk sortu da emakume mugimendu eta bestelako eragileen artean?

10.3. ERAGINAK HELBURUKO POLITIKA/ PLAN EDO ZERBITZUAN

10.3.e. Azken erabakiak izango duen genero-inpaktua neurtu da.

Departamentu arduradunak hartutako erabakiaren gaineko genero-inpaktua aztertu al du?

Positiboa izan al da?

10.4. KULTURA POLITIKOAN ERAGINA

10.4.f. Parte-hartzaileen balorazioa:
1. Prozesuaren erabilgarritasuna.
2. Kudeaketa egokia edo desegokia izan da.
3. Hizkuntzen kudeaketa egokia edo desegokia izan da.
4. Esperientziaren gardentasun maila.
5. Burokratizatzeko edo independentzia galtzeko arriskurik izan al da.
6. Berriro parte hartzeko gogoa.
7. Gogobetetze maila.

Alderik izan da emakume eta gizonen arteko balorazioetan?

Alderik izan bada, zein izan da?aipatzen al da hori azaltzeko egon daitekeen arrazoirik?

BIBLIOGRAFIA

BIBLIOGRAFIA

Administrazio Publikoetan Parte-hartzeko Prozesuak Ebaluatzeko Eredua. Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.

http://www.gardena.euskadi.eus/partehartzea_ebaluazioa/

Ebaluazio-gida: Iruñeko Udalaren Partaidetza-politikak ebaluatzeko tresna praktikoak. Iruñeko Udala, 2019.

Guía práctica evaluación de procesos participativos. OIDP; octubre-noviembre de 2006.

http://www.redcimas.org/wordpress/wp-content/uploads/2012/08/m_OIDPespañol_GUIA.pdf

Rafael Ajangiz, Los nudos de la participación. Elkarrekin Eraikiz.

https://www.innobasque.eus/uploads/documentos/2013/PUBLICACIONES/30041D9DA0FE035F9A65C4F16BB0271D2C652FFD.pdf

HERRITARREN
PARTAIDETZA

~ ~ ~

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa
ETORKIZUNA
ERAIKIZ